

XEDAPEN OROKORRAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

5395

AGINDUA, 2012ko azaroaren 13koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bide-zoruak dimentsionatzeko Arauaren testu berrikusi eta osatua onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumena da bertako Errepide Plan Orokorra onartzea, hala ezarrita baitago honako xedapen hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.34 artikuluan; Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremani buruzko azaroren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluan; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 7.1 artikuluan. Plan orokor horretan, arau teknikoak eta seinalizaziokoak ezartzen dira, gero EAEko administrazio publikoek errepide-sareetan indarrean jarriko dituztenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorrean jasotako arau teknikoek barne hartzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen titulartasuneko errepideetan obrak gauzatzeko nahitaez bete beharreko arau edo instrukzioen multzoa, betiere errepideen arteko koordinazio teknikoa bermatzea helburu hartuta (Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 7.1 eta 11.2 artikulua).

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra idaztea eta ohiko aldaketak landu eta onartzea. Aldaketa horien artean, eraikuntzako eta materialetako arau edo instrukzio teknikoek buruzkoak daude, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan edozein obra egiteko bete beharrekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 8.3 artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorrearen Berrikusketan onartzen duen azaroaren 23ko 307/2010 Dekretuaren 5. artikulua).

Errepide Plan Orokorrearen Batzordeak, 2011ko azaroaren 23an egindako 33. ohiko bilkuran, Plana aldatzea erabaki zuen. Aldaketa horren arabera, berrikusi egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko zoruak dimentsionatzeko Araua, sailburuaren 2007ko uztailaren 12ko Aginduaren bidez onartua. Hartara, arauaren edukia, oro har, berrikusi eta eguneratuko da, azken aurrerapen teknologikoetara eta arauzkoetara egokitu dadin. Ondorioz, arauaren testuan, jatorrizkoaren egiturari eta oinarritzko irizpideei eutsiko zaie, baina honako alderdi hauek aldatu eta osatuko dira:

– Araua Europako araudi hauetara egokituko da: 24/2008 Zirkular Agindua, nahaste bituminosoei buruzkoa, eta 29/2011 Zirkular Agindua, loki bituminoso eta hotzeko aglutinatzaileei buruzkoa.

– Altzairugintzako zepei buruzko zehaztapenak berrikusiko dira, zepa horiek zoruetan erabil daitezzen agregakin modura. Aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan bi urtez egindako Saiakuntza Planaren emaitzen ondorioa da.

– Trafiko handiko tokietan, zementuzko bide-zoruak jarriko dira.

– Preskripzio teknikoak gehituko dira EEHko agregakinei buruz, zehazki ezponda eta lautadetako zoruetarako eta legarretarako hautatutakoei buruz.

2012ko abenduaren 5a, asteazkena

– Arauan, bide-zoruetarako diseinu alternatiboak hartuko dira aintzat.

– Legar-zepazko tarreak deuseztatu egingo dira, zepa pikortatua EAEko merkatutik desagertu baita.

Bestalde, errepide-plan horren gainean egindako ohiko aldaketak arlo horretako eskumena duen saileko sailburu titularrak onartuko ditu, agindu bidez, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 14. artikuluan.

Organo honek dauka aipatutako aldaketak onartzeko eskumena, hala xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.f) artikuluan (dekretu hori bigarrenez aldatu zen urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren bidez, eta hirugarrenez, otsailaren 24ko 5/2012 Dekretuaren bidez).

Adierazitako guztia aintzat hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorraren ohiko aldaketa onartzea (ikus agindu honen eranskina). Aldaketa horren bidez, berrikusi eta osatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bide-zoruak dimentsionatzeko Arauaren testua.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2007ko uztailaren 12ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bide-zoruak dimentsionatzeko Araua onartzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 13a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDE SAREKO BIDE-ZORUAK DIMENSIONATZEKO ARAUA

Edizio gainbegiratua eta osatua

Testua ondorengo helbidean dago:

http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-430/eu/contenidos/informacion/norma_firmes/eu_norfir/norfir.html